



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA SAILA  
Lanbide Heziketako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Viceconsejería de Formación Profesional

# **LANBIDE-HEZIKETAKO ZENTROAREN ETA ENPRESAREN ARTEKO LANKIDETZA-AKORDIOA IKAS-EKINEZKO ERREGIMENEN LANBIDE- HEZIKETA DUALEKO PROIEKTUAK EGITEKO**

**LANBIDE-HEZIKETAKO ZENTROAREN ETA ENPRESAREN ARTEKO  
AKORDIOA, IKAS-EKINEZKO ERREGIMENeko LANBIDE-HEZIKETA  
DUALEKO PROIEKTUAK EGITEKO, BEKA MODUAN**

Lanbide Heziketako zentroa:  
Enpresa:

.....(e)n, .....(e)an (data)

BILDU DIRA

**Alde batetik:**

..... jauna/andrea (NAN: ... ..), .....  
zentroaren zuzendaria (*zentro publikoa bada*) / lege-ordezkaria (*zentro pribatua  
bada*). Zentroaren helbidea: ..... (*udalerria*); .....  
kalea/plaza, .... zenbakia; Lurralde historikoa: .....; posta elektronikoa:  
.....; telefono-zenbakia: .....; faxes:  
.....; IFZ: .....).

**Eta bestetik:**

..... jauna/andrea (NAN: : ... ..), .....  
..... enpresaren izenean (IFZ: .....; udalerria:  
.....; helbidea: ..... kalea/plaza,  
..... zenbakia; PK: .....; posta elektronikoa:  
.....; telefonoa: .....; faxes: .....).

AZALDU DUTE:

Aldeek elkarri aitortzen diotela hitzarmen hau sinatzeko ahalmena eta legitimitatea.

Hitzarmenaren helburua lankidetzan jardutea dela, ikas-ekinezko erregimeneko lanbide-heziketa dualeko proiektuak garatu ahal izateko, ekainaren 2ko 83/2015 Dekretuaren esparruan. Dekretu horren bidez, ikas-ekinezko erregimeneko Lanbide Heziketa Duala ezarri zen Euskal Autonomia Erkidegoan.

## HAU ADOSTU DUTE:

Dokumentuan adierazten diren lanbide-heziketako zentroaren eta enpresaren arteko hitzarmena sinatzea, ikas-ekinezko erregimeneko lanbide-heziketa dualeko proiektuak garatzeko.

Hitzarmen honek aukera ematen du jarraian adierazitako jarduerak egiteko, enpresaren instalazio eta lantokietan (helbidea: *lan-zentroaren udalerrria eta helbidea* .....), edo jarduera egiten den tokian, ekainaren 2ko 83/2015 Dekretuan xedatutakoarekin bat:

- Ikas-ekinezko lanbide-heziketa dualeko prozesuarekin lotutako jarduerak egitea, eranskinean adierazten den lanbide-heziketako edo prestakuntza osagarriko titulua lortzeko.
- Dokumentu honetan adierazitako prestakuntza-jarduerak egitea, lanbide-heziketako zentroan egin ezin direnak, jardueron espezifikotasuna dela-eta.

Jarduera horiek dokumentu honetan adierazitako baldintzetan egingo dira. Bi aldeek dute dokumentuaren berri, eta onartzen dute:

## KLAUSULAK

### **LEHENA.-**

Akordio honen xedea, goiburuan aipatuak diren ikastetxearen eta enpresaren arteko lankidetzaz hitzarmenak finkatzea da, ikasleen ikas-ekinezko erregimeneko lanbide heziketa dualeko programak garatzeko. .... prestakuntza-zikloetan matrikulatuta dauden ikasleekin. Titulua lortzeko enpresan burututako lanbide heziketa dualeko praktikak, ..... ikastetxearekin txandaka garatzen direnak, kanpoko kurrikulum-praktikaren kontsiderazioa dute.

Zentroak eta enpresak konpromisoa hartzen dute ikas-ekinezko erregimeneko lanbide-heziketa dualeko plana garatzeko, EAEko Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren baimena lortu ondoren.

### **BIGARRENA.-**

Hitzarmen honek eranskinean adierazitako lanbide-heziketako zentroko ikasleei eragingo die.

Hitzarmenaren eranskinean prestakuntza-plana eta enpresan egin beharreko egutegia, lanaldia eta ordutegia jasotzen dira, bai eta enpresan praktikak egingo dituzten ikasleen Lanbide Heziketako titulua/tituluak ere.

### **HIRUGARRENA.-**

Bi aldeek adostuko dute ikasleek ikas-ekinezko erregimenean zentroan eta enpresan egin beharreko prestakuntza-programa, kasuan kasu zehaztutako epealdietan.

### **LAUGARRENA.-**

Hitzarmena deuseztatu ahal izango da, kausa hauetako baten bat gertatuz gero:

- Aldeek adostuta.
- Aldeetako batek salatuta, gertaeraren jakinarazpen formala eginda, dela programatutako jarduerak aurrera eramatea ezinezkoa delako, dela hitzarmen honetan programatutako jarduerak arautzeko klausulak bete ez direlako.

Halaber, zentroko zuzendaritzak, ofizioz zein enpresak eskatuta, eta interesdunari entzun ondoren, ikaslea kanpo uztea erabaki dezake, kasu hauetakoren bat gertatuz gero:

- Prestakuntza-programa ez betetzea.
- Praktiketara behin eta berriz huts egitea edo justifikatu gabe berandu heltzea.
- Jarrera desegokiak izatea.
- Ikasleak probetxua ez ateratzea.

### **BOSGARRENA.-**

Enpresak dagokion lanbide-kualifikazioa edo -eskarmetua duen pertsona bat izendatuko du ikasle bakoitzeko, haren hezitzaile izan dadin.

Lanbide-heziketako zentroak tutore bana izendatuko du ikasle bakoitzeko, hari laguntzeko eta diseinatutako prestakuntza-ibilbidearen fase eta jarduera guztien arteko loturari eusteko.

### **SEIGARRENA.-**

Lantokian egin beharreko ikasketa-jardueren edukia eta garapena lanbide-heziketako zentroko tutoreak ebaluatuko ditu, enpresako hezitzailearekin lankidetzan arituta.

### **ZAZPIGARRENA.-**

Ikasleek ez dute inolako lan-harremanik izango enpresarekin.

Ikasleak enpresan emango duen aldiak ez du eragozpenik sortu behar ikasleak lanbide-heziketako zentroko jardueretara joateko duen eskubidean eta betebeharrean. Jarduera horiek aldeztatik aurretik planifikatuko dira, adostutako programan.

Ikasleek ezingo dute gaueko edo txandakako lanik egin.

## **ZORTZIGARRENA.-**

Enpresan ikasketa-jarduerak egiteagatik, ikasleek beka bat jasoko dute. Hileko ordainketetan jasoko dute beka, eta haren zenbatekoa hitzarmen honen eranskinean jaso da.

Enpresak konpromisoa hartzen du ikasleei Gizarte Segurantzako araubide orokorrean alta emateko, urriaren 24ko 1493/2011 Errege Dekretuan xedatutakoarekin bat. Prestakuntza-programetan parte hartzen duten pertsonak Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean sartzeko xedapenak eta baldintzak ezarri ziren errege-dekretu horretan (martxoaren 15eko 5/2013 Errege Lege Dekretuaren bidez aldatu zen).

Eskola-asegurua estalduren osagarri, Administrazioak istripuetarako aseguru-poliza osagarri bat kontratatuko du, eta erantzukizun zibileko beste bat, kalte-ordainak hobetzeko, batetik, eta proiektuaren esparruan ikasleek enpresan egingo dituzten jardueren ondorioz sor daitezkeen hirugarrenentzako kalte-ordainak eta erantzukizun zibila estaltzeko, bestetik.

## **BEDERATZIGARRENA.-**

Enpresak, heziketa-zentroak eta ikasleak aldean arteko erlazio-dokumentu bat sinatuko dute, eta hartan, elementu hauek adieraziko dira: programaren xede den heziketa-zikloa, ikaslearen nortasuna, heziketa-zentroan eta enpresan egin beharreko aldiak, egutegia, ordutegia eta guztizko ordu-kopurua, bai eta bekaren guztizko zenbatekoa eta hura ordaintzeko berezitasunak ere.

Dokumentu horretan, ikasleak hautatzeko erabili diren irizpideak adieraziko dira, bai eta ikasleek heziketa-zentroko eta enpresako egonaldirako hartutako konpromisoak ere.

Dokumentu hori hitzarmen honi erantsiko zaio.

## **HAMARGARRENA.-**

Enpresak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Ikastetxeko tutoreei enpresan sartzeko aukera bermatzea, bisitak eta programazioa berrikusteko jarduerak egin ahal izateko, bai eta ikaslearen prestakuntza-prozesua ebaluatu eta gainbegiratzeko jarduerak egin ahal izateko ere.
- Ikastetxearekin adostutako prestakuntza-jardueren programazioa betetzea.
- Ikaslearen aurrerapenen banakako jarraipena eta ebaluazioa ikuskatzea (hezitzaileak egin behar ditu jarraipena eta ebaluazioa).

- Lan-arriskuen prebentzioaren arloan eska dakizkiokeen betebeharrak guztiak betetzea, eta ikasleari norbera babesteko ekipamenduak ematea, prestakuntza-programaren xede den lanposturako beharrezkoa bada.
- Unean-unean indarreko segurtasun- eta higiene arauak betetzea eta betearaztea.
- Sinatzen diren hitzarmenen berri ematea langileen legezko ordezkariari. Gutxienez, alderdi hauek jakinarazi beharko zaizkie: zer pertsona hasiko diren enpresan, zer lanpostutan jardungo duten, eta prestakuntza-jardueraren edukia.

### **HAMAIKAGARRENA.-**

Hitzarmen honen esparruan jarduten duten ikasleek konpromiso hauek hartzen dituzte:

- Ikastxean eta enpresan hitzartutako egutegia, lanaldia eta ordutegia betetzea.
- Enpresak ezarritako arauak betetzea, lan-arriskuen prebentzioarekin lotutakoak batez ere.
- Enpresan agintzen zaizkion atazak behar bezala egitea eta betetzea, ezarritako programazioarekin bat, enpresaren barne-funtzionamendua batez.
- Eskura jartzen zaizkion baliabide materialak ondo erabiltzea eta zaintzea.
- Lanera joan ezin bada, edo lanetik kanpo irten behar badu, horren berri enpresari berehala ematea.
- Konfidentzialtasun maximoa eustea enpresako egonaldian, bai eta egonaldia amaitu ostean ere. Bestalde, ez du baimenik enpresaren datuak erreproduzitzeko edo gordetzeko, ezta datuok transmititzeko baimenik ere, hori egiteko bitartekoa dena delakoa izanda ere, enpresako hezitzaileak horretarako baimena espresuki ematen ez badio.
- Enpresarekin espresuki hitzartutako beste batzuk.

### **HAMABIGARRENA.-**

Hitzarmen honen esparruan enpresan jarduten duten ikasleek irasleek konpromiso hauek hartzen dituzte:

- Ikas-ekinezko erregimenean egingo diren bere eskumeneko prestakuntza-programaren diseinuan eta planifikazioan zein lanbide-heziketako moduluen programazioan parte hartzea, lanbide-heziketako zikloko hezkuntza-taldearekin batera.
- Ikas-ekinezko heziketa-zikloko programan deskribatutako prozedurak eta sistemak aplikatzea, eta dagokion dokumentazioa betetzea.
- Programaren amaierako memoria egiten parte hartzea, parte hartzen duten gainerako eragileekin batera, zentroko zuzendaritzak zehaztutako koordinatzailearen pean.

### **HAMAHIRUGARRENA.-**

Hitzarmen honen esparruan enpresan jarduten duten ikasleen tutoreek konpromiso hauek hartzen dituzte:

- Programa martxan jartzeko egin behar diren ekintzak koordinatzea, eta enpresara egin behar diren bisitak egitea.
- Ikas-ekinezko prestakuntza-jardueraren jarraipena egitea.
- Heziketa-zentroko irakasleekin lankidetzan aritzea programan sartzen diren moduluen ebaluazioan.
- Programaren amaierako memoria egiten parte hartzea, parte hartzen duten gainerako eragileekin batera, zentroko zuzendaritzak zehaztutako koordinatzailearen pean.
- Enpresaren eta ikastetxearen artean hitzartutako beste batzuk.

### **HAMALAU GARRENA.-**

Hitzarmen hau indarrean egongo da sinatzen den datatik prestakuntza-plana amaitu arte.

### **HAMABOS GARRENA.-**

Izaera pertsonaleko datuen babesari buruzkoak. Hitzarmen honek eta hitzarmeneko eranskinek eragindako guztiek bete egin beharko dituzte abenduaren 13ko 15/1999 Legean, izaera pertsonaleko datuen babesari buruzkoan, jasotako xedapenak, bai eta hura garatzeko araudian jasotako xedapenak ere. Halaber, nork bere pribatutasun-politika jakinarazi beharko die gainerako aldeei.

Eta aurreko guztiarekin ados daudela adierazteko, sinatzaile bakoitzak lege dagozkion eskumenak baliatuz, eta, beraz, hitzarmena sinatzen duten aldeak behartuz, hitzarmena sinatu dute, hasieran adierazitako leku eta datan.

ENPRESAREN IZENEAN

IKASTETXEAREN IZENEAN

IKAS-EKINEZKO ERREGIMENeko LANBIDE-HEZIKETA DUALEKO  
PROIEKTUAK BEKEN MODALITATEAN EGITEKO SINATUTAKO LANKIDETZA  
AKORDIOAREN ERANSKINA

Heziketa-zikloa:

Lanbide Heziketako zentroa:

Enpresa:

Ikaslea: (NAN, izen-abizenak)

Programaren guztizko ordu-kopurua:

Heziketa-zentroko ordu-kopurua:

Enpresako ordu-kopurua:

Egutegia eta ordutegia heziketa-zentroan eta enpresan (aldika):

1. ....
2. ....
3. ....
4. ....
5. ....

Konpentsazio-bekaren guztizko zenbatekoa:

Beka hileka ordainduko da, hila amaituta, honela:

Ikaslea aurretik zehaztutako irizpideak kontuan hartuta hautatu da, ekainaren 2ko 83/2015 Dekretuaren, Euskal Autonomia Erkidegoan ikas-ekinezko erregimeneko Lanbide Heziketa Duala ezartzen duenaren, 8. artikuluekin bat.

Hitzarmen-dokumentu honen xede den ikasleak adierazten du ikas-ekinezko programa onartu aurretik jakinarazi zaizkiola

programaren ezaugarriak, eta proposatutako programan zehaztutako egutegiaren eta ordutegiaren berri baduela eta horiek betetzeko konpromisoa hartzen duela, bai eta enpresarekin sinatutako hitzarmen-dokumentuan jasotako betebeharrak betetzekoa ere.

- Enpresak ordainduta jasoko dudan beka, enpresan egiten dudan formakuntzarako denboraren arabera izango da.
- Heziketa Ziklo honi dagokion titulua lortzeko, modulu guztiak gainditu behar ditut, eta horretarako, akordio hau burutu behar da eta dokumentu honetan azaltzen diren, enpresan egin beharrezko ordu kopurua bete behar da. Moduluen ebaluazioa ikastetxeko irakasleek eta enpresako hezitzaileek egingo dute, batera.
- Zehaztutako aldia amaitzean, salbuetsita egongo naiz Lantokiko Prestakuntzako modulua egitetik.
- Asistentziarekin, puntualtasunarekin, eta segurtasun-arauak eta enpresak ezar dezakeen beste edozein arau betetzearekin lotutako alderdiak bete egin beharko dira, eta ez betetzea akordio hau desegiteko kausa izan daiteke. Enpresaren eta heziketa-zentroaren barne-araudiak zorrotz betetzeko konpromisoa hartzen du.
- Gertatzen bada anomaliarik edo segurtasun-hutsegiterik dagoela, edo lan desegokiak egin behar direla, eta abar, institutuko tutoreari jakinaraziko zaio, hark dagokiona egin dezan.
- Egoera desberdinen ondorioz, eta elkarren arteko akordioa izanik, aurretik zehaztutako ordutegiak eta/edo egutegiak aldatzeko beharra egongo balitz, aukera hori kontuan hartuko da. Beti programa ezartzeko erabili diren irizpideak errespetatuz
- Proposatutako programarako egutegiaren eta ordutegien berri du, eta horiek betetzeko konpromisoa hartzen du.
- Ikasleak uko egiten badio titulu jakin bat lortzeko ikasketak jarraitzeari, edo heziketa-zentroak edo enpresak justifikatzen badute ikaslearen errendimendua ez dela egokia antolakuntza-eredu berri honen bidez lanbide-heziketako titulu jakin bat lortzeko ikasketak gainditzeko, eta hori ikastetxeak, txosten batean adierazten badute, ikasleak heziketa-zikloa ohiko antolaketa-ereduan egiten jarraituko du.

Halaber, adierazten dute jaso dutela ekainaren 2ko 83/2015 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoan ikas-ekinezko erregimeneko Lanbide Heziketa Duala ezartzekoan, zehaztutako informazio orokorra eta aplikatzen den gaineko arautegiari dagokiena.

Enpresa. Izen-abizenak:

Sinadura

Lanbide-heziketako zentroko zuzendaria. Izen-abizenak:

Sinadura

Ikaslea. Izen-abizenak:

Sinadura

xxxxxen, 201\_(e)ko \_\_\_\_\_ (e)an